



**2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005**

Akta zenbakia: 14/2005
Bilera data: 2005-11-30
Bilera mota: Ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 16:30- 17:05
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 14/2005
Fecha: 30-11-2005
Tipo de reunión: Pleno ordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 16:30- 17:05
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Angeles Iriondo Mugica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos González
 Jose Guirado Novo
 Jose Maria Mugica Heras
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Reunidos:**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Jose Maria Mugica Heras
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Bitarteko idazkaria:

Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:

Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:

- 1.- Aurreko akta onartzea, bidezkoa bada.
- 2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko Hitzarmenaren onarpena, ezinduen etxeko laguntza zerbitzuaren eskuordetze eta kudeaketa Udalaren esku uzteko.
- 4.- Zero Pobrezia kanpainaren inguruko eta pobrezia kontrako adierazpenaren inguruko mozioak.
- 5.- Euskal Herriko Udalen Legearen inguruko

Orden del día:

- 1.- Aprobación, si procede, del acta anterior.
- 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.
- 3.- Aprobación del Convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta para la formalización de la encomienda de gestión del servicio de ayuda a domicilio para las personas dependientes.
- 4.- Mociones sobre la campaña de "Pobreza Cero" y "Manifiesto contra la pobreza".
- 5.- Mociones sobre la Ley Municipal Vasca.



**2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005**

mozioak.

6.- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko Adierazpen Institutuzionalaren onarpena berrespena.

6.- Ratificación de la aprobación de la Declaración Institucional sobre la violencia contra las mujeres.

7.- Galde-eskeak.

7.- Ruegos y preguntas.

1.- Aurreko akta onartzea, bidezkoa bada.

1.- Aprobación, si procede, del acta anterior.

Alkateak esan du 2005eko azaroaren 7ko akta onartu behar dutela; era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

El alcalde ha señalado que hay que aprobar el acta de 7 de noviembre de 2005; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta adierazi du berak proposamen bat egin zuela udal instalazioetako tasen inguruan, hain zuzen, igoera 6,64koa izan zedila bai seihileko abonamendurako eta bai urtekorako, eta proposamen hori ez dela ageri; hori dela eta, eskatu du berak esandakoa sartzeko. Bestalde, adierazi du aktaren eranskinean akats bat dagoela seihileko abonamenduen tasetan, eta hori zuzentzeko eskatu du. Idazkariak erantzun dio berrikusiko dituztela berak esandakoa eta tasen zenbatekoak, eta berriz ere banatuko duela aktaren zirriborroa, zuzenduta, onar dezaten.

Ha pedido la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para exponer que él realizó una propuesta, en relación a las tasas por utilización de instalaciones deportivas, de que la subida fuese del 6,64 tanto para los abonos semestrales como para los anuales, que dicha propuesta no consta y solicita que se incluya en su intervención. Por otro lado, ha manifestado que en el anexo del acta hay un error en cuanto a las tasas de los abonos semestrales y solicita que se corrija. La secretaria responde que se revisará su intervención, así como los importes de las tasas y que se volverá a repartir el borrador de dicha acta corregida para proceder a su aprobación.

2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

2005eko irailaren 28tik 2005eko azaroaren 23ra bitarteko Alkatetzako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 28 de septiembre del 2005 hasta el 23 de noviembre de 2005, enviados junto con la convocatoria.

Era berean, 2005eko irailaren 8an, irailaren 19an, urriaren 5ean eta urriaren 17an Herriko

Asimismo, se ha dado cuenta de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

Local el 8 de septiembre, el 19 de septiembre, el 5 de octubre y el 17 de octubre del 2005. Por tanto, han quedado informados.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta urriaren 18ko Alkate Dekretuari buruz galdetu du; hain zuzen, ordainketa bat atzeratzeko eskatu dute, eta atzerapen hori zein obratarako den galdetu du. Alkateak erantzun dio obra hori Vegasan egingo diren babes ofizialeko 100 etxebizitzetarako dela; zerga ordaintzeko epea hilabete atzeratzeko eskatu zuten, obra geroago hastekoak baitziren. Alkateak argitu du zenbateko hori ordaindu dutela.

Ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para preguntar, acerca de un Decreto de Alcaldía de 18 de octubre, en el que se solicita un aplazamiento, a qué obra corresponde dicho aplazamiento. El Alcalde le responde que es la obra referente a las 100 viviendas de protección oficial que se van a realizar en Vegas; solicitaban un aplazamiento de un mes en el pago del Impuesto, ya que iban a comenzar más tarde con la obra. El Alcalde aclara que ya está abonado dicho importe.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko Hitzarmenaren onarpena. ezinduen etxeko laguntza zerbitzuaren eskuordetze eta kudeaketa Udalaren esku uzteko.

Alkateak hitza eman dio M. Isabel Vaquero Monterori, gai hau azal dezan; honek esan du Gizarte Ongizateko Batzordean aztertutako Hitzarmena dela; aspalditik eskatzen zuten udalek beste erregularizazio bat egiteko, zeren eta iruditzen zitzaien ez zela bidezkoa Foru Aldundiaren eta udalen artean zegoen desoreka hori. Orduan Foru Aldundiak eta udalek akordio bat iritsi dute, non prezioa eta beste betebeharrak batzuk ere hitzartu diren. Udallerri guztiak hitzarmen hori sinatu behar dute abenduaren 1a baino lehen; udallerriek eskatutako gauza bat da, eta, Gizarte Ongizateko Sailean ikusitakoaren arabera, erregelamendu berria ezartzea onuragarria da bai erabiltzaileentzat eta bai Urnietako Udalarentzat.

3.- Aprobación del Convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta para la formalización de la encomienda de gestión del servicio de ayuda a domicilio para las personas dependientes.

El alcalde ha cedido la palabra a M^a Isabel Vaquero Montero para que explique este punto. Maribel ha señalado que este convenio ya se trató en la Comisión de Bienestar Social. Los ayuntamientos vienen solicitando desde hace mucho una nueva regularización, y es que consideraban inapropiado el desequilibrio existente entre la Diputación y los ayuntamientos. Por tanto, la Diputación ha llegado a un acuerdo con los ayuntamientos, consensuando así el precio y otros requisitos. Todos los municipios deben suscribir dicho convenio antes del 1 de diciembre. Esta iniciativa la han solicitado los propios ayuntamientos, y, según el criterio del Departamento de Bienestar Social, la implantación de dicho reglamento beneficia tanto a los usuarios como al Ayuntamiento de Urnieta.

**2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005**

PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du hitza, eta eztabaidatutako gaiarekin lotutako idatzi bat irakurri du: "Gipuzkoako Foru Aldundiak esparru hitzarmen bat izenpetu du Eudelekin, etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko baldintzak zehazteko. Akordio horren ondorioz, izenpetzen ari diren hitzarmen hori aurkeztuko zaie Gipuzkoako udalei. Argi izan behar da etxez etxeko zerbitzua udalaren eskumena dela, eta mendeko pertsonak artatu eta zaintzea Foru Aldundiarena. Etxez etxeko laguntza zerbitzua mendeko pertsonak ere erabiltzen dutenez, 2001. urteaz geroztik hitzarmen bat dago bi erakundeen artean, mendeko erabiltzaileek etxez etxeko zerbitzuan egiten duten gastua Foru Aldundiak ordain dezan, urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren arabera. Foru Aldundiak ez du inoiz gastu guztia ordaindu, eta udalek ordaindu behar izan dute finantzatu gabeko zati hori, aurrekontuek eman dieten aukeren arabera. Orain aurkeztu diguten hitzarmena, nahiz eta orduko 16 euroko prezioa hobetzen duen, ez zaigu egokia iruditzen, hainbat arrazoiengatik; beraz, kasu honetan kontrako botoa emango dut. Arrazoiak hauek dira: lehenengo klausulan ez da esaten kudeaketa onartuz gero udalerrri bakoitzean dagoen eskaera osoa finantzatuko denik; bigarren klausulan, ez gaude ados erabiltzailearen parte-hartzea ezartzen duen araudiarekin, uste baitugu erabiltzaileak diskriminatu egiten dituela, hitzarmena sinatu aurrekoak edo ondorengoak diren, eta, gainera, inplizituki familia aurrezkoa zigortzen duelako; bestalde, Araudiko 7. artikulua asteburuetara mugatzen du zerbitzua, ez du argitzen zein diren araudian adierazten diren mugak, ez eta nork ezartzen dituen eta zein baremok arautuko duten ere; hirugarren klausulan, Foru Aldundia bere mugez harago ari da, pertsona beregainena ere arautu baitu, eta hori udalen ardura da; laugarren klausula lehenengoarekin lotuta dago garbi: ez du bermatzen finantzaketaren %100; izan ere, esaten du Aldundiak urtero zerbitzuaren orduko tarifa

Ha pedido la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso, quien ha procedido a leer un escrito en relación al tema debatido: "La Diputación Foral de Gipuzkoa ha firmado con Eudel un acuerdo marco para definir las condiciones de prestación del servicio de ayuda a domicilio. Como consecuencia de dicho acuerdo se va a presentar a los ayuntamientos gipuzcoanos el Convenio que se está firmando. Hay que tener bien claro que el servicio de ayuda a domicilio es un servicio de competencia municipal, mientras que la atención y cuidado de las personas dependientes corresponde a la Diputación Foral. Dado que el SAD lo utilizan también las personas dependientes, desde el año 2001 hay un acuerdo entre ambas instituciones de forma que el gasto que los usuarios dependientes hagan del SAD será asumido por la institución foral, en la Norma Foral 4/2001, de 30 de enero. La Diputación Foral nunca ha asumido el gasto completo, siendo los ayuntamientos los que han tenido que afrontar la parte no financiada de acuerdo a sus posibilidades presupuestarias. El Convenio que ahora nos presentan, aunque mejora el pago por hora de 16 euros/hora frente a los 14 anteriores, no nos parece adecuado por diversas razones y por lo tanto, en este caso, votaré en contra. Las razones son: en la cláusula primera no se contempla que la aceptación de la encomienda de gestión deba llevar aparejada la garantía de financiación al 100% de la demanda existente en cada municipio; en la cláusula segunda, no estamos de acuerdo con la disposición del reglamento que establece la participación económica del usuario, porque consideramos que discrimina a los usuarios según sean anteriores o posteriores a la firma del Convenio, y porque además lleva implícita la penalización del ahorro familiar; por otra parte, el artículo 7 del Reglamento limita la prestación del servicio los fines de semana, no se aclaran los límites a los que se refiere dicho reglamento ni quién los establece, ni los baremos por los que se regirá;

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gizuzkoa*

2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

gehienez zenbatekoa izango den ezarriko duela; bosgarren klausulan, berriz ere udalen eskumenetan sartzen da, pertsona beregainen zerrenda, itzarote-zerrenda eta abar bidaltzera behartzen baititu. Aldundiak ezin du hala-hola utzi bere erantzukizun bat, ezin die esan udalei hartu edo uzteko; udalek uste badute hitzarmenak gastuak ekarriko dituela ez bakarrik orain baizik eta baita etorkizunean ere, Aldundiari esan ahal die har dezala berriz bere gain mendeko pertsonentzako zerbitzua. Ez dezagun ahanzi haren eskumen dela eta ahalik eta modu eraginkorrean eta erabiltzaileek ahalik eta gastu gutxiena izateko moduan eman behar duela”.

M. Isabel Vaquero Monterok erantzun dio udalerrien erabilera hobetzen dela eta batez ere baliabide gutxiko jendearena, hori frogatuta dagoela gizarte langileak egindako kalkuluen arabera; sinatzen ez badute, atzera pausoa izango da. Bestalde, esan du bere ustetan alderdi popularrak Foru Aldundian duen gatazka ezin duela udalerrietara eraman, zeren eta udalerriok uste dute asko hobetuko dela beren egoera; daukaten egoeratik hona pauso handi bat eman dutela eta Eudeleko exekuzio-batzordean hainbat alderdi politikok lan egin dutela udalerriek marko berri hau izan dezaten.

Gero, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du aldeko botoa emango dutela. Adierazi du Udalak gero landuko duen araudian gauza batzuk hobetu badaitezke, ezin hobeto.

en la cláusula tercera la Diputación Foral se está extralimitando en sus competencias al regular también a las personas no dependientes, que son competencia clara de los ayuntamientos; en la cláusula cuarta hay una relación clara con la primera: no se garantiza al 100% la financiación, al establecer que la Diputación señalará anualmente la cuantía máxima de la tarifa máxima por hora de servicio; en la cláusula quinta vuelve a invadir las competencias de los ayuntamientos al obligarles al envío de listas de personas autónomas, listas de espera, etc. La Diputación no puede hacer dejación de una responsabilidad suya, no puede decir a los ayuntamientos lo tomas o lo dejas; si los ayuntamientos consideran que el Convenio les es gravoso no sólo en este momento sino a futuro, pueden decirle a la Diputación que retome el servicio de las personas dependientes. No olvidemos que es una competencia y debe prestarla de la forma más eficaz y menos gravosa para los usuarios”.

M^a Isabel Vaquero Montero le ha respondido que mejorará el uso de los municipios y sobre todo el de la gente de escasos recursos, y que eso está demostrado según los cálculos de la trabajadora social; y que si no lo suscriben supondrá un paso atrás. Asimismo, ha señalado que a su juicio el partido popular no puede trasladar el conflicto que tiene en la Diputación Foral a los ayuntamientos, ya que estos municipios consideran que supone una gran mejora en su situación; ha añadido que se ha dado un gran paso desde la situación actual, y que en la ejecutiva de Eudel han trabajado diferentes partidos políticos para que los municipios tengan este nuevo marco.

Después ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para expresar su voto a favor y decir que en el reglamento que posteriormente se elabore en el ayuntamiento, si se pueden mejorar algunas



2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

cuestiones, perfecto.

Azkenik, alkateak botazioa egitea proposatu du. Emaizta hau izan du:

Alde: 12 (5 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 EB)
Kontra: 1 (PP)
Abstentzioak: 0

Finalmente, el Alcalde ha propuesto someter este punto a votación; el resultado ha sido el siguiente:

A favor: 12 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU)
En contra: 1 (PP)
Abstenciones: 0

Ikusirik 2005eko azaroaren 21ean egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Informazio Batzordean gai honetaz hitz egin eta informatu zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer, celebrada el 21 de noviembre de 2005 se trató e informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak kideen gehiengo absolutuarekin hartu du honako

Tras la votación, la Corporación, con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko hitzarmena sinatzea, ezinduen etxeko laguntza zerbitzuaren eskuordetze eta kudeaketa Udalaren esku uzteko.

Primero.- Aprobar el Convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta para la formalización de la encomienda de gestión del servicio de ayuda a domicilio para las personas dependientes.

Bigarrena.- Alkate-presidenteari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Segundo.- Facultar al Alcalde-Presidente para la firma del citado Convenio.

4.- “Zero Pobrezia” kanpainaren inguruko eta “Pobrezaren kontrako adierazpena”-ren inguruko mozioak.

4.- Mociones sobre la campaña de “Pobreza Cero” y “Manifiesto contra la pobreza”.

Alkateak hitza eman dio udal talde sozialistari, aurkeztu duen mozioa azal dezan. PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du Gizarte Ongizateko Batzordean hitzartu zutela udal talde sozialistak mozioa berrikusiko zuela, alderditik etorri haitzitzaien; hala, 1. eta 4. puntuak bere hartan uzteko eta 2. eta 3. puntuak ezabatzeko

El Alcalde ha cedido la palabra al grupo municipal socialista para que expliquen la moción por ellos presentada. Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán quien ha dicho que en la Comisión de Bienestar Social convinieron que el grupo municipal socialista iba a revisar la moción, ya que les vino dada por su partido; lo

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sguzkoa*

2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

proposatu dute.

que plantean es mantener el punto 1 y 4 de la moción y suprimir el 2 y el 3.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du.

El Alcalde ha propuesto someterlo a votación, siendo el resultado:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 EB)

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2005eko azaroaren 21ean egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Informazio Batzordean gai honetaz hitz egin eta informatu zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer, celebrada el 21 de noviembre de 2005 se trató en informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Zero Pobrezia kanpainari buruzko mozioa onartzea (aktaren I. Eranskina).

Primero y único.- Aprobar la moción sobre la campaña de "Pobreza Cero". (Anexo I del Acta).

Ondoren, M. Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza esateko Bilbon izandako jardunaldietan onartu zela pozeziaren aurkako adierazpena eta Bozeramaileen Batzarrean esan zuten bezala atxikimendua ematea proposatzen dutela; beraz, ados baldin badaude, Urnietako Udala horri atxikiko zaiola.

Seguidamente, ha tomado la palabra M^a Isabel Vaquero Montero para señalar que en las jornadas celebradas en Bilbao se aprobó una declaración en contra de la pobreza y que tal y como se explicó en la Junta de Portavoces proponen adherirse a dicha declaración; por tanto, si están de acuerdo, el Ayuntamiento de Urnieta se adherirá a la declaración.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, siendo el resultado:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 EB).

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2005eko azaroaren 28an egindako Bozeramaileen Batzarrean gai honetaz hitz egin

Visto que en la Junta de Portavoces, celebrada el 28 de noviembre de 2005 se trató en



**2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005**

eta informatu zela.

informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa eta bakarra.- Urnietako Udala *Pobreziaren kontrako adierazpena*-ri atxikiko zaio (aktaren II. eranskina).

Primero y único.- El Ayuntamiento de Urnieta se adhiere al *Manifiesto contra la pobreza*. (Anexo II del Acta).

5.-Euskal Herriko Udalen Legearen inguruko mozioak.

5.- Mociones sobre la Ley Municipal Vasca.

M. Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza esateko Bozeramaileen Batzarrean ados jarri zirela: zio guztiak ezabatzea eta alderdi sozialistak aurkeztutako bi puntuak onartzea.

Ha tomado la palabra M^a Isabel Vaquero Montero para señalar que en la Junta de Portavoces llegaron a un acuerdo: eliminar la exposición de motivos y aprobar los dos puntos planteados por el grupo socialista.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, siendo el resultado:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 EB)

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2005eko azaroaren 28an egindako Bozeramaileen Batzarrean gai honetaz hitz egin eta informatu zela.

Visto que en la Junta de Portavoces, celebrada el 28 de noviembre de 2005 se trató en informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Urnietako Udalak, Urnietako herriaren ordezkari eta parte-hartzearen organo gorenak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio onar dezala Euskal Udalen Lege Proiektua eta igor diezaiola, lehenbailehen Parlamentuari.

Primero.- El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta, órgano máximo de representación y participación popular del municipio de Urnieta insta al Gobierno Vasco a que apruebe y remita al Parlamento, con la mayor urgencia posible, el proyecto de Ley Municipal Vasca.

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Eguzkia*

2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

Bigarrena.- Horrez gain, Udalbatzak uste du beharrezkoa dela udalerriek Finantzen Euskal Kontseiluan parte hartzea, adierazitako Udal Lege horren bidez edo beste lege espezifiko baten bidez.

Segundo.- Asimismo, el Pleno del Ayuntamiento considera necesaria la participación de los municipios en el Consejo Vasco de Finanzas, la cual puede instrumentarse bien en el marco de la antedicha Ley Municipal o mediante otra Ley específica.

6.- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko adierazpen instituzionalaren onarpena berrestea.

M. Isabel Vaquero Monterok hartu du hitza esateko Informazio Batzordetik pasatu zutela Emakundek bidalitako adierazpen instituzional hau; Herriko Gobernu Batzarrak onartu zuela gaur arte ohiko udalbatzarrik ez zutelako eta 25ean izan zelako emakumeen aurkako indarkeria salatzeke eguna; esan du gelditu zirela udalbatzar honetara ekartzea adierazpenaren onarpena berresteko.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 EB)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Ikusirik 2005eko azaroaren 21ean egindako Gizarte Ongizate, Osasun eta Emakumearen Informazio Batzordean gai honetaz hitz egin eta informatu zela.

Ikusirik 2005eko azaroaren 21ean Herriko Gobernu Batzarrak hartu zuen akordioa.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- 2001eko

6.- Ratificación de la aprobación de la Declaración Institucional sobre la violencia contra las mujeres.

Ha tomado la palabra M^a Isabel Vaquero Montero para señalar que esta Declaración Institucional la pasaron por una Comisión Informativa, y que la aprobó la Junta de Gobierno Local; dado que hasta hoy no tenían pleno ordinario y el 25 fue el día en contra de la violencia contra las mujeres; ha señalado que acordaron traerlo a pleno, para ratificar la aprobación de la declaración.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, siendo el resultado:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

En contra: 0

Abstenciones: 0


Visto que en la Comisión Informativa de Bienestar Social, Salud y Mujer, celebrada el 21 de noviembre de 2005 se trató en informo sobre este punto.

Visto el acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 21 de noviembre de 2005.

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

ACUERDO

Primero y único.- Ratificar el acuerdo



2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

azaroaren 21ean Herriko Gobernu Batzarrak hartutako akordioa berrestea, eta oso-osorik onartzea Emakunderen adierazpen instituzionala (aktaren III. eranskina).

adoptado por la Junta de Gobierno Local el 21 de noviembre de 2005, aprobando íntegramente la declaración institucional de Emakunde. (Anexo III del Akta).

7.- Galde-eskeak.

Alkateak gainerako zinegotziei eman die hitz, nahi dutena galdetzeko.

Jose Maria Mugica Heras zinegotzi sozialistak hartu du hitza, eta esan du abuztuan baimen bat eskatu zutela Zelaialde plazako 7.ean dauden lokal batzuk lokal, bulegotarako berritzeko, eta Urbil merkataritza gunean higiezin enpresa bat aurkitu dutela eta han lokal horiek etxebizitza gisa saltzen ari direla. Bere ustez, hor ageriko irregulartasun bat dago, eta galdetzen dute, azaldutako hori agerian jartzeaz gain, Alkatetzak ezer ba ote dakien horretaz. Alkateak erantzun dio beraiek zera dakitela, solairuarte guztietan ari direla baimenak eskatzen lokal komertzialak, bulegoak eta abar jartzeko, eta baimenak horren arabera ematen ari direla. Esan du badakiela zenbait kasutan etxebizitzak ere egiten ari direla solairuarte horietan.


Jose Maria Mugica Herasek esan du lokal horietan bulegoak jartzeko eman direla baimenak eta dokumentu pribatuan etxebizitza gisa saltzea dela irregulartasuna. Bigarrenik, esan du eskaera Paradise Valley izeneko entitate batek egin duela, Merkatu Erregistroan begiratu dutela, eta hara non Paradise Valleyko administratzailea V.S. den, Alkatetzak izendatutako karguduna. Uste dute horrekin aurrera eginez gero arazo larri bat ekar dezakeela, ez daki zein ordenatan: zibilean, zigorrean... Baina jendea lokalak etxebizitza gisa erosten ari bada eta baimenak

7.- Ruegos y preguntas.

El alcalde ha cedido la palabra a los demás concejales para que formulen las preguntas que deseen.

Toma la palabra el concejal socialista Jose Maria Mugica Heras para señalar, en relación a la plaza Zelaialde nº 7, que en agosto se solicitó una licencia para reforma de unos locales, como uso de locales, de despachos, y que se han encontrado con que una inmobiliaria, sita en el Centro Comercial Urbil, está vendiendo estos locales como viviendas. Según su modo de ver se produce una irregularidad manifiesta y lo que preguntan es, además de querer dejar constancia de la situación descrita, si por parte de la Alcaldía se sabe algo de esta situación. Le responde el Alcalde que lo que ellos pueden saber es que en todas las entreplantas están solicitando licencias para hacer locales comerciales, despachos... y que las licencias están otorgadas en base a ello. Señala que tiene constancia de que, en algunos casos, incluso viven en esas entreplantas.

Señala Jose Maria Mugica Heras que las licencias están concedidas para obras de despachos en esos locales y que la irregularidad es que se estén vendiendo en documento privado como viviendas. Señala en segundo lugar, que quien presenta la solicitud es una entidad que se llama Paradise Valley, que han consultado el Registro Mercantil, y el problema está en que quien figura como administrador de Paradise Valley es V. S., que es cargo de designación de esta Alcaldía. Piensan que si eso sigue adelante se puede acabar provocando un grave conflicto,

Urnietako Udala*Gipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2005EKO AZAROAREN 30EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 30 DE NOVIEMBRE DE 2005

lokaletarako badira, arazo larria sor daiteke bihar, eta erantzukizunak etor daitezke hortik; izan ere, adierazi duten administratzaileaz ari dira. Esan du kontu hori irregulartasun nabarmena izan daitekeela, eta beraiek, talde gisa, irekita daudela esku hartzeko egunen batean beharrezkoa izanez gero, eta uste dutela kontu hau, irregulartasunen bat gertatzen ari bada, posible ez den gauza bat erosten ari den jendeari ez kalterik giteko dela.

